

UDALEKU IREKIAK / 2026 Oinarriak eta arauak

1.- Udalekuen helburuak

Udalekuen helburu nagusia da aisialdi giroan haurren artean euskararen erabilera sustatzea. Horrez gain, udalekuetan balio hauek ere landuko dira: hezkidetzeta, kultur aniztasuna eta inklusibitatea.

2.- Datak, ordutegiak eta elkartzeko tokiak

Datak:

Arantza, Bera, Etxalar eta Igantzin uztailearen 6tik 31ra (4 aste).
Lesakan uztailearen 13an hasi eta abuztuaren 28ra arte (7 aste).

Ordutegiak:

Herri guzietan ordutegia 9:00-13:00ak bitartekoa izanen da. Lehen ordua (9:00-10:00) harrerarako izanen da. Izen ematerakoan hautatu egin beharko da ordutegia: harrera orduarekin, 09:00-13:00 edo 10:00-13:00 bitartekoa. Horren arabera matrikularen prezioa ere aldatu egingen da (ikusi 5. oinarrian matrikulen prezioak eta ordainketak).

Elkartzeko tokiak:

Arantza: Arantzako Herri Eskola
Bera: Ricardo Baroja I.P. / Labiaga Ikastola Etxalar: Landagain I.P.
Igantzi: Igantziko I.P.
Lesaka: Irain I.P.

3.- Nork hartzen ahal du parte?

3-12 urte bitarteko (2014-2022 urteetan jaiotako) haurrek, irizpide hauen arabera:

- o Bortzirietan erroldatuak egotea (NORBERE HERRIAN) eta bertako ikastetxeetan D eta B ereduetan matrikulatuak daudenak. Salbuespena egingen da Alkaiaga edo Zalain Zoko auzoetan erroldatutako haurrekin, Lesakako udalerrikoak izan arren, lotura geografiko eta historikoa dute Berako udalerriarekin. Hortaz, haur horiek Berako udalekuetan izen eman ahalko dute, deskontuak berdin aplikatuta.
- o Bortzirietan erroldatuak egonda ere, (NORBERE HERRIAN) eskualdetik kanpoko ikastetxeetan D ereduan ikasten ari direnak. Arestiko puntuko salbuespen bera aplikatuko da Alkaiaga eta Zalain Zoko auzoetan erroldatutako haurrekin.
- o Bortzirietako ikastetxeetan D eta B ereduetan ikasten ari direnak, nahiz eskualdean erroldaturik ez egon.
- o Bortzirietan erroldatuta ez egonda ere eskualdetik kanpo D ereduan ikasten ari direnak (familiar dagokio hori egiaztatzea).

Irizpide horiek betetzen ez dituzten eskatzaileak baldin badira eta plazak soberan egonez gero, kasuak aztertuko dira, beti ere udalekuetan euskararen erabilera bermatuko dela ikusita.

Mankomunitateak baldintza horiek egiaztatzeko behar diren agiriak eskatzeko eskubidea du, udal eta ikastetxe bakoitzean.

Behar bereziak dituzten 3-12 urte bitarteko haurrentzako (2014-2022 bitartean jaiotakoak) 3 plaza gordeko dira. Haur horiek begirale bana behar dutela erabakitzeko orduan osasun eta hezkuntza arloko profesionalen txostenak hartuko dira aintzat. Familiek izen ematerakoan aurkeztu beharko dituzte txostenak. Izen emana ahala beteko dira plazak.

4.- Izen ematea

- o Izena ematea online egingen da. Izen emateak Dindaia Fundazioak kudeatuko ditu eta hari ordainduko zaizkio matrikulak.
- o Izena emateko epea zabalik egonen da maiatzaren 28ra arte.
- o Izena ematean bakoitzak nahi dituen asteak hautatuko ditu, baita ordutegia harrera orduarekin (9:00-13:00) edo gabe (10:00-13:00) nahi duen ere.
- o Udalekuetan onartuak izan diren haurren asistentzia kontrolatuko da. Astebetez udalekuetara justifikatu gabe joaten ez diren haurrek plaza galduko dute eta erreserban daudenei parte hartzeko aukera emanen zaie. Plaza galtzen duten familiek ez dute dirua berreskuratzeko aukerarik izanen.
- o Plaza kopurua mugatua da. Izena emana ahala onartuko dira parte hartzaileak, eskainitako plazak bukatu arte betiere arestian aipatutako baldintzak betetzen badira.
- o Matrikula izen ematearekin batera ordainduko da.
- o Herri bakoitzean udalekua antolatu ahal izateko beharrezkoa da gutienez 15 haurrek izen eman dezaten.

5.- Matrikulen prezioak

Honakoak dira astebeterako prezioak:

Bortzirietan erroldatuak	9:00-13:00 (20 h): Harrera orduarekin	40,00 €
	10:00-13:00 (15 h): Harrera ordurik gabe	30,00 €
Familia ugariak/bi senide edo gehiago/guraso bakarrak (erroldatuak): % 20ko deskontua	9:00-13:00 (20 h): Harrera orduarekin	32,00 €
	10:00-13:00 (15 h): Harrera ordurik gabe	24,00 €
Egoera zaugarrian dauden familiak (erroldatuak): % 50eko deskontua	9:00-13:00 (20 h): Harrera orduarekin	20,00 €
	10:00-13:00 (15 h): Harrera ordurik gabe	15,00 €
Bortzirietan erroldatuak ez direnak	9:00-13:00 (20 h): Harrera orduarekin	48,00 €
	10:00-13:00 (15 h): Harrera ordurik gabe	36,00 €

Deskontuak ez dira pilatuko. Familia ugariaren txartela nahiz guraso bakarrarena izen ematearekin batera aurkeztuko dira.

Bortzirietan erroldatuak ez daudenei ez zaie deskonturik aplikatuko.

Egoera sozioekonomiko zaugarrian dauden familien kasuan, Bortzirietan erroldatuak badaude, matrikularen prezioei % 50eko deskontua aplikatzeko Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak ezarritako irizpideak hartuko dira kontuan.

Izen ematearekin batera ikastetxearen ziurtagiria aurkeztu beharko dute. Errenta aitortpena egitetik salbuetsita dauden familien edota Nafarroara berriki iritsi diren familien kasuan, balorazioa Bortzirietako Gizarte Zerbitzuan eskatuko dute eta izen ematean aurkeztu.

6.- Matrikulen zenbatekoa itzultzea

Behin izena emanda, udalekuetan bajak izanez gero, ordaindutako diruaren itzulketak modu honetan egingen dira:

- Udalekuak hasi aitzinetik baja justifikatzen bada (eritasuna edo azken orduan sortutako arazo larriren bat, agiri bidez justifikatuta), matrikularen % 100 itzuliko da.

- Udalekuak hasi ondotik baja justifikatzen bada (eritasuna edo azken orduan sortutako arazo larriren bat, agiri bidez justifikatuta), matrikularen zati proportzionala itzuliko da (izena emanda dagoen epean falta diren egunei dagokiena).
- Udalekuak hasi aitzinetik baja emanez gero justifikaziorik gabe, matrikularen % 50 itzuliko da.
- Udalekuak hasi ondotik baja emanez gero aitzineko puntuetan aipatzen den justifikaziorik gabe, ez da dirurik itzuliko.

Edozein kasutan, matrikularen dirua itzuli behar bada, bankuko gastuak beti familiaren gain izanen dira.

7.- Udalekuen antolaketa eta segimendua

Udalekuak Bortziriako Zerbitzuen Mankomunitateak antolatu ditu, Euskara Zerbitzuaren bidez. Mankomunitateak Dindaia Fundazioa kontratatu du udalekuen prestaketa orokorraz, izen emateaz, segimenduz eta langileen kontratazioaz ardura dadin.

8. Datu pertsonalen babesa

Tratamenduaren arduraduna: Bortziriako Zerbitzuen Mankomunitatea. Tratamenduaren helburua: udalekuetako izen ematea eta parte hartzea kudeatzea. Tratamendua oinarritzen da interes publikoaren alde egindako misio bat betetzean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak gauzatzean.

Datuak Dindaia Fundazioak bildu eta tratatuko ditu, Bortziriako Zerbitzuen Mankomunitatearen izenean udalekuak kudeatu eta garatzeko.

Parte hartzaileen eta haien gurasoen edo legezko tutoreen identifikazio datuak erabili ahal izanen dira, bai eta harremanetarako datuak eta, hala badagokio, jardueran behar bezala parte hartzen dela bermatzeko beharrezko informazioa ere.

Aipatutako helburua betetzeko behar den denboran gordeko dira datuak, eta mantendu egingen dira erakunde arduradunak tratamenduaren ondoriozko erantzukizunak izan ditzakeen bitartean. Halaber, Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legean ezarritako kontserbazio arauak aplikatuko dira.

Interesdunek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, tratamendua mugatzeko eta aurka egiteko eskubideak erabil ditzakete Bortziriako Zerbitzuen Mankomunitateari zuzendutako eskaera baten bidez edo dbd@bortziriak.eus helbide elektronikoaren bidez. Era berean, eskubidea dute erreklamazio bat aurkezteko Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan (www.aepd.es).

Oinarri hauek Bortziriako Zerbitzuen Mankomunitateko Batzorde Orokorrak onartu ditu 2026ko martxoaren 13an egindako bileran.